



BERGARAKO UDALA ETA LOKATZA KERen ARTEKO HITZAMENA PELLO GAITANOren OROIMENEZ III. MARTXA ZIKLOTURISTA ANTOLATZEKO.

Bergaran, 2025eko maiatzaren 16an

BILDU DIRA

Alde batetik,

GORKA ARTOLA ALBERDI jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Bestetik,

Ion Unamuno Lecuona (NAN: 72579106-F), Lokatza ZEn presidentea, elkartearen izenean (Boni Laskurain 21ean du egoitza soziala eta IFZ zenbakia G-20619631

Ion Unamuno Lecuona adierazten du ordezkatzeko duen elkarteak, ez zaiola aplikagarri estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 legeak aurreikusitako debeku kasurik, eta hala, bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo adierazi dute.

ADIERAZPENAK

Pello Garitano, herritar eredugarria izan zen, Lokatza ZEn hainbat hamarkadetan zuzendaritza taldean lan boluntarioa egiteaz gain, beste hainbat arlotan boluntario lana egin zuen; kultura, musikan, arlo sozialean etab.

Hil ondoren Lokatzak, Bergarako Udalari proposatu zion bere omenez, martxa zikloturista bat antolatzea, jai giroan.

2025. urtean III. edizioa izango da, aurreko bi urtetan kirol ekitaldian eta ondorego ekintzetan, herritarren partaidetza eta giroa bikaina kontutan izanik, Bergarako Udalak interesgarria ikusten du Pello Garitano martxa zikloturista egonkortzea eta horretarako 2025. urteko aurrekontuan, Bergarako Udala partida izenduna aurreikusi du aurrekontuetan (BK 2124), 5000 eurokin.

Hori dela eta, ondorengo klausulak dituen hitzarmena adostu dute.

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Xedea

2025eko maiatzaren 17an, Pello Garitano III. Martxa zikloturista antolatzeke hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA:





Bergarako
Udala

Bergarako Udalak 2025. urteko aurrekontuan, LOKATZA ZE. PEIO GARITANOren OROIMENEZ partida izenduna aurreikusi du aurrekontuetan (BK 2124), 5000 eurokin

HIRUGARRENA:

Hitzarmena 2025. urteko, maiatzaren 17an, antolatuko ediziorako da.

LAUGARRENA: Lokatza Elkartearen betebeharrak

Lokatza ZEak ekitaldia aurrera eramateko tramite, prestaketa eta antolaketa lanak egoki betetzea, lege, segurtasun eskakizunak barne beharrezkoak diren baliabideak jarritz.

Horretarako Lokatza ZEk, gehienez bi hilabeteko epean, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- Gastuen balantze orokorra, izandako diru-sarrerara eta gastuak jasotzen dituen.
- Gastu horiek frogatzen dituen txosten ekonomikoa faktura originalekin edo kopia konpultsatuekin osatutakoa.
- Jarduera justifikatzeko ororigarria.
- Programatutako jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxka, prentsa-oharrak...)

BOSGARRENA: Bergarako Udalaren betebeharrak

Antolakuntza egokia bermatzeko Udalak dituen baliabideak kontutan izanik, Lokatza ZEk eskatutako baliabideak jarriko ditu elkartearen esku.

Bergarako Udalak egitaraua aurrera eramateko, gehienez, 5.000 euroko diru-ekarpena egiteko konpromisoa hartzen du. Diru-ekarpen hori dena batera ordainduko zaio Lokatza Zeri

SEIGARRENA:

Lokatza ZE-k, halaber, ondorengo betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen du:

Udalak egin ditzakeen ikuskapenak ez oztopatzea.

Gutxienez lau urtez gordetzea jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak. Epe horretan, Bergarako Udalak, horrela erabakiz gero, dokumentu horiek aztertu ahal izango ditu.

Aurkezpena eta sari-banaketa egiten badira, udal ordezkariekin adostu beharko da, eta horien presentzia bermatu.

a) Berdintasuna:

- Emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da. Horretarako kontuan hartuko da emakumeen arteko aniztasuna, eta neurriak hartuko dira egoera baztergarrian dauden emakumeen parte hartzea bermatzeko.
- Ekimen guztietan estereotipo zein genero-rol tradizionalak gainditu eta gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatuko da.
- Elkarteak indarkeria matxista prebenitzeko eta artatzeko protokolo bat edukiko du eta edozein ekintza antolatzerakoan protokoloari buruzko informazioa zabalduko du antolatzaileen eta parte hartzaileen artean. Protokoloa osatzeko Udaleko Berdintasun Arloarekin harremanetan jartzeko aukera izango du elkarteak, laguntza eske.





Bergarako
Udala

- Zaintza lanak kontuan hartuta bateragarritasuna errazte aldera, ahal den heinean, neurriak kontuan hartuko dira edozein ekintza antolatzerakoan: ekintzen ordutegiak, lekuen irisgarritasuna, zaintza zerbitzuak...
- Ahal den heinean, hitzarmena kudeatzeko edozein estrukturaren ordezkaritza gizonen eta emakumeen presentzia orekatua egongo da. Gizonen eta emakumeen ordezkaritza orekatua izango da bi taldeetako batek ere ez badu kide guztien % 60 baino gehiago eta % 40 baino gutxiago.
- Dokumentu zein euskarri informatibo guztietan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatuko da. Era berean, sexuaren aldagaia, sistematikoki txertatuko du egiten diren estatistika, inkesta eta datu bilketa guztietan, bai eta udalari aurkeztu beharreko txostenetan.

b) Euskara:

- Jarduera iragartzeko kartel, esku-programa, iragarki, liburuxka... euskaraz edo ele bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) izango dira. Ele bietan egiten diren kasuetan euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gaztelaniazkoaren gainean) eta bai neurriaren aldetik ere. Euskarazko testuak zuzen idatzita daudela egiaztatzeko, Udaleko Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango da.
- Jardueraren aurkezpena, agurra... euskara hutsean edo ele bietan egingo dira. Ele bitan egiten badira, euskarari lehentasuna emango zaio (lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz).
- Musika jartzen bada, euskaraz edo gehiena euskaraz izango da.
- Antolatzen den jarduerak hizkuntza edukia badu (hitzaldia, ikastaroa, antzerkia...) zein hizkuntzatan izango den adieraziko da jarduera iragartzen denean.

c) Osasunaren sutapena eta adikzioen prebentzioa

- Ekimen guztietan osasun sustapenaren eta adikzioen prebentzioaren ikuspegia txertatuko dira.
- Teknologia digitalen eta horien aplikazio berrien erabilera arduratsua sustatuko da (komunikaziorako teknologia digitalen erabilera mugatzeko neurriak: whatsapp...).
- Ekintzen zabalkuntzan, ez dira erabiliko alkoholaren kontsumoarekin lotu daitekeen inolako aipamen edo irudirik; era berean, ekintzan bertan alkoholaren kontsumoaren sustapen, banaketa eta kontsumoa mugatzeko neurriak beteko dira.
- Ospakizunei dagokienez (kurtso hasiera eta bukaerako merienda, bazkari, afariak...), batez ere adin txikikoekin egindakoetan, adikzioen (alkohola, tabakoa eta bestelako drogen-mendekotasunen zein jokabide-adikzioen) aurrekari diren arrisku-portaerak saihesteko baliagarriak diren neurriak hartuko dira.
- Zari banaketetan ez da alkohol-dun edaririk banatuko

d) Ingurumena:

ERABILITAKO PAPEREZKO DOKUMENTU / EUSKARRIETAN

- Dokumentuak formatu elektronikoan entregatu behar dira posta elektronikoaren edo zerbitzari baten bidez (dokumentuak deskargatzeko estekak dituztela, edo ftp bidez), edo, bestela, CD, DVD edo antzeko euskarriren baten, betiere birragabarriak eta irekiak, berriro erabili ahal izateko.
- Dokumentuak inprimatzea beharrezkoa bada:





Begarako
Udala

- Ahalik eta ale gutxiena inprimatu, beharrei egokituz (bilera bateko partaide-kopurua, etab.), kopiarik ez dadin sobera geratu.
- % 100 birziklatutako papera erabili (% 65, gutxienik, kontsumitu ondokoa) edo baso kudeaketa iraunkorreko edo birziklatutako zuntzen edukia gutxienik % 20koa duen paper birziklatu gabea.
- Dokumentuak alde bietan eta zuri-beltzean inprimatu (zuri-beltzean interpretatu ezin bada erabili behar da kolorea; bestela, ez), alde bakoitzean bi orrialde edo gehiago daudela (hala komeni bada eta ulertzeko moduan dagoela bermatzen bada), ahalik eta gutxiena koadernatuta eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko).
- **ELIKAGAIK**
 - KM0ko edo hurbileko elikagaiak eta bertako produktuak kontsumituko dira ahal den heinean eta ingurumena kontutan hartzen dituzten ekoizpen motak kontutan hartuko dira, hala nola, ekoizpen ekologikoa.
 - Berrerabili daitezkeen plater, edalontzi eta mahai tresnak erabiliko dira
 - Ahal dela bilgarriak dakarten produktuak erabiltzea ekidiko da.
 - Formatu handietan aurkeztutako produktuak lehenetsiko dira.
- **GARBIKETA PRODUKTUAK**
 - Honako hauek erabiltzea debekatuta dago:
 - aire-freskagarriak
 - pixatokiatarako pastillak edo lurrintzeko substantziak
 - esprai formatuko produktuak
 - desinfektatzaileak edo desinfektatzaileak dituzten produktuak (lixiba, kasu) garbitasun orokorrerako, komunetan eta zehaztutako azaleretan salbu.
 - Garbiketa-produktu ohikoenek (erabilera anitzeko garbitzaileak, zorua garbitzekoa, beirak garbitzekoa eta zeramikazko gainazalak garbitzekoa) ekoetiketaren baten baldintzak beteko dituzte, adibidez, Europako Etiketa Ekologikoa, Beltxarga Zuria ekoetiketa edo produktuak izan beharreko osagai kimikoak zehazten dituen beste ekoetiketa baliokideren bat.
- **KOMUNEKO PAPER A ETA ESKUAK LEHORTZEKO PAPER A**
 - Komuneke papera eta eskuak garbitzeko papera %100 birziklatuak izan behar dute.
- **HONDAKINAK**
 - Hondakinen bereizketa egokia bermatuko duten baliabideak jarri behar dira: Hondakin atal bakoitzerako (beira, errefusa, papera, ontzi arinak eta organiko adibidez) dagokion edukiontzia ea beharrezkoa den edukiontzi tamaina. Beharrezkoa balitz edukiontziak identifikatu egingo dira eta hondakinen bereizketaren inguruko azalpenak emango dira ekitaldian.
 - Zabor-poltsek gutxienez % 80 plastiko birziklatukoak eta polietileno edo polipropilenoak izan behar dute.
 - Organikoaren kasuan poltsa konpostagarriak erabiliko dira.
- **MUGIKORTASUNA**
 - Ekitaldira oinez edo bizikletaz joatea lehenetsiko da.
 - Garraiobideren bat behar izanez gero, kolektiboak lehenetsiko dira
 - Erabiltzen diren garraiobideak erregai alternatiboak erabiltzea lehenetsiko da
 - Ibilgailuan ahalik eta joan-etorri gutxien egingo dira.



- Saneamendu zerbitzua burutzeko ibilgailuaren egokitasuna eta ingurumenarekiko errespetua baloratuko dira: erabili beharreko energia berriztagarriak, erregai fosilekiko igorpenen murrizketa eta uraren kontsumoaren murrizketa (berrerabiltzea eta aurrezteak).

ZAZPIGARRENA.- Udalak emandako diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-ekarpen ere jaso daiteke. Jarduerarentzat beste diru-laguntzarik lortuz gero, Bergarako Udala jakinaren gain jarri beharko du Lokatza ZEk, jakin bezain azkar eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (udalarenak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo da inolaz ere altuagoa izan, diru-ekarpena ematean zaio jardueraren kostua baino.

ZORTZIGARRENA.- Diru-ekarpena emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo udalarenaz gain, beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

BEDERATZIGARRENA.- Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hautakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-ekarpena bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea
- b) Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

HAMARGARRENA.- Kontratu honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa eta Bergarako aurrekontuetako udal araua aplikatuko dira.

HAMAIKAGARRENA.- Alde bietako batek hitzarmen honetan hartutako betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

HAMABIGARRENA.- Diruz lagundutako Pello Garritano III. Zikloturista martxa jardueran gerta daitezkeen istripuen edo beste edozein kalteren erantzule Lokatza ZE bera izango dela eta Bergarako Udala kanpo gelditzen dela aitortzen dute bi aldeek.

Eta adostasun gisa, bi aldeek dokumentu hau hirukoiztuta sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan, eta nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dut.



IDAZKARIA
Kontxi Ugalde



ALKATEA
Gorka Artoia



Lokatza ZE.
Ion Unamuno

